
JARDUERA FISIKO ETA KIROLAREN ZIENTZIEN GRADUKO MUGIKORTASUN ARAUDIA ERASMUS, LATINOAMERIKA (AL) ETA SICUE PROGRAMETARAKO

Ikasleen truke programetarako arautegi orokorrek (bai nazioarteko programetakoek: ERASMUS eta AL, bai estatuko programakoak: SICUE) arautzen dituzte ikasleen trukeak Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean, baina, horretaz gain, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultateak arautegi hau egin du bere ikasleek programa horietan parte hartzeko.

1.- Erasmus, AL eta SICUE programetako plazetara aurkezten diren ikasleek gutxienez 50 kreditu izan beharko dituzte eginda, eta bigarren mailan matrikulatuta egon, betiere eskariak aurkezteko epea hasi aurretik.

2.- Erasmus eta AL programetako plazetara aurkezten diren ikasleek egiaztatu beharko dute xede herrialdeko hizkuntza dakitela, fakultateak horretarako zehazten dituen epeetan. Ikasleek B2 mailako agiria edo goragokoa eduki beharko dute. Beraz, bere garaian zehaztuko diren eta ikasleei jakinaraziko zaizkien epeetan aurkeztu beharko dituzte jatorrizko agiriak. Agiri hori eta arautegi orokorrek eskatzen duten gainerako dokumentazioa Kanpo Harremanetarako Dekanotzan aurkeztu beharko da.

Fakultateak argitara emango du xede herrialdeen zerrenda, bakoitzerako eskatzen den hizkuntza zehaztuta. Ingelesa jakitea baloratu daiteke hizkuntza horren agiririk eskatzen ez den tokietarako ere, adibidez portugezaz edo italieraz egiten den tokietara joateko (ikasleek hizkuntza horietarako gaitasuna egiaztatzen ez badute). Ulertuko da ikasleek gaitasun egokia dutela B2 mailako agiria edo goragokoa daukatenean.

3.- Erasmus, AL eta SICUE programetako batean mugikortasuna egin ez duten ikasleek lehentasuna izango dute behin parte hartu dutenek baino.

4.- ERASMUS, AL eta SICUE programetan parte hartzen duten ikasleei kanpoan egindako irakasgaiak aitortzeko konpromisoa hartzen du unibertsitateak. Beraz, euskarazko taldeko ikasleei bermatzen zaie ikasketak amaitzean euskarako egiaztagiria emango zaiela, arautegian ezarrita dagoen bezalaxe.

5.- Gure fakultateko SICUE programan bederatzir hilabeteko aldia baino ez da aurreikusten.

6.- Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultateak ez die luzatuko egonaldia Erasmus eta Latinoamerikako programetako ikasleei, EUDAPA nazioarteko programan plaza bat lortu dutenei izan ezik.

7.- Erasmus eta AL programetako ikasleek gehienez ere 60 ECTS kreditu aitortu ahal izango dituzte urtean, eta, gutxienez, UPV/EHUko arautegian zehaztutako kopurua.

8.- Arautegiari jarraiki, lehen edo bigarren lauhilekoan egonaldia egingo duten ikasleek jatorrizko fakultatean egin beharko dute matrikula, ikasturte horretan egin nahi dituzten irakasgai guztiena egin ere, ikasketak aitortzeko konpromiso akademikoan azaldu behar direnak barne, jakina.

Hautatuak diren ikasleak informatu beharko dira logistika kontu guztiez eta xede fakultatean izena emateko tramiteez, eta zehaztutako epeetan bidali beharko dute *application form* delakoa (izena emateko orria), kasuan kasuko dokumentuekin batera (pasaportea, aseguru, argazkiak, espediente akademiko...). Ikasleen ardura da xede unibertsitateak eskatzen duen dokumentazioa epearen barruan aurkeztea edo bidaltzea; dena dela, fakultateko truke programen koordinatzaileak, hautaketa prozesua amaitutakoan, hautatutako ikasleen identifikazio fitxak bidaltzen dizkie xede unibertsitatei.

Hautatutako ikasleek beren fakultateko koordinatzaileari bidali beharko diote ikaslearen fitxa datu guztiekin beteta.

9.- Ikasturteko lauhileko batean edo bietan Erasmus, AL edo SICUE mugikortasun programetan parte hartzen duten ikasleek ezin izango dute UPV/EHUko bigarren deialdia erabili aitortpenerako hitzarmen akademikoan ageri diren irakasgaietan.

10.- Onarpen eskarian edo xede unibertsitatera bidalitako behin-behineko edozelako hitzarmen akademikoan aipatzen diren

irakasgaiak behin-behinekoak izango dira, fakultateak bakarrik onartuko baitu behin betikoa den hitzarmen edo konpromisoa.

Irakasgaiak aitortzeko konpromisoa dokumentu itxia da, xede unibertsitatean egindako kredituak aitortuko dielako bakar-bakarrik dokumentu horretan zehaztutako irakasgaiekin.

Fakultateak ikaslearen espedientean sartuko ditu xede unibertsitateak, jatorrizko ziurtagirien bidez, behin betiko konpromiso dokumentuan jarritako irakasgaietan emandako kalifikazioak. Xede unibertsitateek erabakiko dute noiz ematen dituzten kalifikazioak; Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultateak ez du horren erantzukizunik hartuko bere gain.

Aitortze dokumentua egiteko beharrezkoa da xede unibertsitateko programa bateragarria izatea jatorrizko unibertsitateko programarekin, programa bietako irakasgaiak koherentziaz aitortu ahal izateko.

11.- Abuztuan hasten diren Erasmus eta AL programetarako, alde guztiak sinatutako behin betiko konpromiso eta akordio akademikoak aurkezteko azken eguna irailaren 20a izango da. Epea ez da luzatuko. Dokumentuak data horren ostean aurkeztuz gero, programako aitortze eta kalifikazio prozesua baliogabetu egingo da.

Irailean hasten diren Erasmus eta AL programetarako, alde guztiak sinatutako behin betiko konpromiso eta akordio akademikoak aurkezteko azken eguna urriaren 31 izango da. Epea ez da luzatuko. Dokumentuak data horren ostean aurkeztuz gero, programako aitortze eta kalifikazio prozesua baliogabetu egingo da.

Otsailean hasten diren Erasmus eta AL programetarako, alde guztiak sinatutako behin betiko konpromiso eta akordio akademikoak aurkezteko azken eguna martxoaren 10a izango da. Epea ez da luzatuko. Dokumentuak data horren ostean aurkeztuz gero, programako aitortze eta kalifikazio prozesua baliogabetu egingo da.

12.- Kanpo Harremanetako dekanordeak konpromiso akademikoak prestatuko ditu programen, irakasgaien eta kreditu zamaren arabera, baina Akademia Antolakuntzako eta Ikasketak Aitortzeko Batzordeak eman beharko dio onespena eta balioa prozesuari.

13.- Xede fakultateek bidalitako notak ez badaude zenbakiz emanda (1etik 10erako eskalan) Parmako Unibertsitateko bihurketa taularen arabera egokituko dira, Akademia Antolakuntzako eta Ikasketak Aitortzeko Batzordeak onartu baitu. Ebaluatuko dira kontuan hartuta xede unibertsitateak emandako maila edo kalifikazio bakoitzari dagokion zenbakizko batezbestekoa.

14.- ERASMUS, AL eta SICUE programetarako hautatuak izan diren ikasleek urteko egonaldietan gutxienez 50 kreditu eta gehienez 60 kreditu egin beharko dituzte, eta lauhileko bateko egonaldietan, berriz, gutxienez 24 eta gehienez 30 kreditu egin beharko dituzte. Kontuan hartuko dira unibertsitate batzuek (adibidez Kolonbiakoek, Txekiakoek...) ezarrita dauzkaten kopuruaren arabera aitortze bereziak.

15.- Irakasgaiak aitortzeko konpromisoetan ezin izango dira irakasgai hauek sartu: ikasleek suspendituta dauzkatenak, bosgarren edo seigarren deialdian dauzkatenak edo, behin baino gehiagotan matrikulatuta egonda, ikasleak azterketara behin ere aurkeztu ez diren irakasgaiak.

16.- Curriculumeko kanpoko praktikak egin gura dituzten ERASMUS eta AL ikasleek kontuan hartu beharko dute bakarrik egin ahalko dituztela praktikok xede unibertsitatean ez dauden lauhilekoan Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatean indarrean dagoen programa batean, salbu eta programa hori aitortze konpromisoan sartzen bada.

Truke programa batean parte hartzen duten ikasleek ezin izango dute Gradu Amaierako Lana hitzarmenetan edo konpromiso dokumentuetan sartu.

17.- Truke programetan izena eman duten ikasleek, baliokidetzeko konpromisoak eta/edo itun akademikoak hala diotelako eta, helburuko unibertsitateko egutegi akademikoarengatik, akordio akademikoetatik kanpo diren irakasgaietarako ebaluazio probak dei egindako datetan ezin egin baditzaizkete, dekanotzarekin adostu beharko dituzte proba horiek egiteko datak.